

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

5601

AGINDUA, 2013ko abenduak 18koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena; honen bitartez onartzen dira erakunde publikoek esku-hartze sozialaren esparruan teknikariak eta/edo administrariak kontratatzeke eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak emateko oinarriak, eta laguntza horietarako deialdia egiten da 2014. urterako.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak sortu, kendu eta aldatzeari, eta sail horien eginkizunak eta jardun-arloak zehazteari buruzko lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak gizarte-zerbitzuen arloa identifikatzen du Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari dagozkion arloetako bat bezala, eskumenei dagokienez.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak gizarte-zerbitzuetan egiten den jarduerari deitzen dio gizarte esku-hartze, eta adierazten du autonomia pertsonala sustatzera eta babestera eta pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzera bideratuta dagoela, sustapen-, prebentzio-, babes- eta laguntza-eginkizuna garatuta, batez ere pertsonalak eta harremanezkoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez.

Esku-hartze soziala sektore-esparru handietako bat da ongizatearen aldeko ekintzaren barruan, hezkuntza-alorreko eskuhartzeari, osasun-alorreko esku-hartzeari, enpleguari buruzko esku-hartzeari, etxebizitzarekin lotutako esku-hartzeari eta abarri dagozkien ekintzekin batera. Izaera misto, koordinatu edo integratuko esku-hartzeak, hala nola gizarte- eta hezkuntzaalorrekoak, gizarte- eta osasun-alorrekoak, gizarte- eta lan-alorrekoak edo gizarte- eta bizileku-alorrekoak, esku-hartze sozialaren modutzat har daitezke.

Gizarte-zerbitzuak esku-hartze soziala egiteko esparru pribilegiatua badira ere, zerbitzu horietatik haratago ere joan daiteke esku-hartze hori, batez ere zeharkako esparru edo gai jakin batzuetara proiektatzen bada, esate baterako, etorkinen gizarteratzea eta, oro har, kulturen arteko elkarbizitza.

Hain zuzen ere, arestian aipatutako zeharkako politika horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzak bestelako erakunde publikoei zuzendutako diru-laguntzen inguruko jarduna bereziki handia izan da, langileak kontratatzeke laguntzen kasuan nagusiki, udalesparruan jarduerak garatzeko eta etorkinen gizarteratzearen eta integrazioaren zeharkako ikuspegiak bereziki kontuan hartuko dituen esku-hartze soziala gauzatzeko. Diru-laguntzen ekintza hori zirkunstantzia jakin batzuetan justifikatu da bereziki, zehazki, Eusko Jaurlaritzak bere eskumenak gauzatzean sustatu zituen plan eta ekimenen inpaktua plan eta ekimen horiek egikaritzeko lanean inplikaturako erakunde publikoek xurgatzea eta beren gain hartzea zaila denean, epe motzean, behinik behin.

Bestalde, agindu honen bitartez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak jarraipena eman nahi dio azken urteotan etorkinen gizarteratze-politiken esparruan garatu den diru-laguntzen politikari.

Horrez gain, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera Lanbidek Dirusarrerak Bermatzeko Errentaren kudeaketa bere gain hartzeak, aldaketa handia dakarkie toki-erakundeek gauzatu beharreko politikei, eta horrek aukera ematen die erakunde horiei gizarteratze-politikak are gehiago sustatzeko, baita gizartean baztertuta geratzeko arriskuan daudenen enplegu-aukerak areagotzeko jarduerak modu sakonagoan garatzeko ere. Lanbidek Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta kudeatu dezan,

beharrezkoa da oinarrizko gizarte-zerbitzuekin koordinatuta eta modu osagarrian lan egitea, gizartean baztertuta edo bazterkeria-arriskuan dauden pertsonekin modu integralean lan egin ahal izateko. Horrela, testuinguru berri horrek aukera emango du Gizarte Zerbitzuen Legeak proposatutako komunitate-ikuspegian eta printzipioetan aurrera egiteko.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea onartzeak funtsezko aurrerabidea ekarri dio Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen unibertsalizazio-prozesuari eta esku-hartze sozialaren eremuaren ordenazio-prozesuari, eta horretaz gain, testuinguru jakin bat sortzen laguntzen du; testuinguru horretan, diru-laguntzen ekintza handi eta egonkorra erakunde publiko jakin batzuek beste erakunde publiko batzuen egiturak eta jarduerak finantzatzeko deialdien bitartez gauzatzen da ekintza hori— gero eta okerrago egokitzen da, erreferentziazko eredu erakunde-maila bakoitzak honako ezaugarri hauek dituen neurrian: berezko erantzukizunak eta ekimenak, erantzukizun eta ekimen horiek aurrera eramateko behar besteko finantzaketa, eta jakina, bere egiturak, lanbide-figurak eta jarduerak zehazteko behar beste autonomia, eta zalantzarik gabe, baita kasu bakoitzari dagokion eskumen- eta geografia-eremuan diharduten erakundeei (gizarte-ekintzako hirugarren sektorekoak) zuzendutako diru-laguntzen lan propioa erabakitzekoa ere.

Era berean, gizarteratzeari, immigrazioari eta, besteak beste, kulturen arteko bizikidetzari lotutako zeharkako politikei dagozkien legediak eta planek joera bat dute, batetik, egitura publikoko erakunde bakoitzaren erantzukizunak gero eta argitasun handiagoz identifikatzekoa, eta bestetik, elkarlanean berdintasunez aritzekoa, gero eta neurri handiagoan; aitzitik, horrek ez du esan nahi zirkunstantzia jakin batzuetan, eta baldintza jakin batzuekin, erakundeen arteko lankidetzaren horrek ezin duenik ekarri erakundeen artean funtsak transferitzea.

Bestalde, Toki Administrazioaren Arrazionaltasun eta Iraunkortasunari buruzko Lege-aurreproiektua onartuko da laster, eta bertan zehatz-mehatz aipatzen dira Toki Administrazioak burutu behar dituen eskumenak, eskumen autonomiko eta estataletatik bereizten direlarik. Ildo horretan, toki-erakundeei ez dituzten onartuko honako eskumenak: legeak esleitzen ez esleitzeaz gain, eurentarako finantzaketa egokirik ez dutenak. Horretaz gain, eskumen-xedarraren horrek berekin dakar, gizarte-zerbitzuetan, toki-erakundeei baliatzen zituzten eskuemak ez izatea; izan ere, erreformak inadarra hartzen duntetik hara nahi da eskumen horiek erakunde autonomikoek balaitu ditzatela.

Ildo horretan, Lege-aurreproiektuko 25. artikuluan zehazten denez, 20.000 biztanletik gorako udalerriek, eurenak balira bezala, baliatuko dituzte eskumen hauek: premia sozialeko egoeren ganeko informazioa bildu eta ebaluaziak egitea, eta gizartetik baztetuak izateko arriskuan direnak edo jada halako egoeran direnak laguntzea.

Diru-laguntzen Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina eta haren garapen-araudia onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren arau-esparruaren barruan dago.

Agindu honetan aurreikusitako bi laguntza-lerroak honako hauek dira:

- a) Gizarteratzearen arloko teknikariak eta/edo administrariak kontratatzeko laguntzak.
- b) Immigrazio-teknikariak kontratatzeko eta immigrazioaren eta kulturen arteko elkarbizitzaren arloko jarduerak egiteko laguntzak.

Lehenengo lerroari dagokionez (Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza da haren kudeaketa-organoa), urtean behingo deialdi bat da, eta langileak (teknikariak eta/edo administrariak) kontratatzen laguntzea du xede, gizarteratzearen, ongizate sozialaren eta parte-hartze sozialaren alorreko pro-

zesuetan gero eta eraginkorragoa izango den esku-hartze soziala tokiko esparrutik sustatzeko, laneratze aktiborako prestakuntza-baliabideetara iristea errazte aldera nagusiki. Esku-hartze sozial hori, toki-erakundeek kontratatutako langileek egiteaz gain, erakunde pribatuek ere egin dezaketenez gero, laguntzen lerro honetan ere erakunde horietako kontratazioak finantzatzeko laguntzak eman daitezke.

Bigarren lerroa, zeinaren kudeaketa-organoa Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza baita, EAEko erakunde-egituran immigrazioak duen errealitateari arreta handiagoa eta hobe ematen lagunduko duten langile teknikariak eta jarduerak finantzatzean datza, eta oro har, kultura arteko bizikidetzaren faboratuko duten esku-hartze sozialeko jarduerak egitean.

Horren guztiaren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN ERKIDEAK

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da teknikariak eta/edo administrariak kontratatze eta jarduerak garatzeko Eusko Jaurlaritzak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren bitartez erakunde publikoei zuzendutako laguntza ekonomikoak arautzea eta 2014. urterako deialdia egitea, betiere langile eta jarduera horiek honako esparru hauetakoak badira: immigrazioa eta kultura arteko bizikidetzaren.

2.– Laguntza hauen onuradunak izango dira, 12. eta 17. artikuluetan ezarritakoari jarraiki, tokiko udalerrak, mankomunitateak, koadrilak, partzuergoak, agentziak eta udalaz gaindiko bestelako erakundeak, edota udalerrien elkarteak, Euskal Autonomia Erkidegokoak, betiere udalen eta foru-aldundien premiei erantzuteko xedea badute.

3.– Kontratutako pertsonalaren jarduna betearazteko edo jarduerak garatzeko epea 2013ko ekitaldia da.

2. artikulua.– Erreferentziazko irizpideak.

1.– Aurreikusitako laguntzen xede diren langileek eta jarduerak indarreko legediarekin bat etorri beharko dute, eta baita Agindu honetan jasotako sektore-esparruekin (gizartezerbitzuak) eta zeharkako esparruekin (immigrazioa eta kultura arteko bizikidetzaren) lotutako esku-hartzearen plane-tan kokatuta egon ere, erreferentzia nagusia Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea dela kontuan hartuz.

2.– Horrela, honako erreferentziazko irizpide hauen bitartez zuzendutako eskabideei eman ahal izango zaizkie diru-laguntzak:

a) Prebentzioa: hasteko, lehentasuna arretarako premia agertzea, luzatzea edo areagotzea saihesten duen esku-hartzearen alde.

b) Ikuspegi komunitarioa: familia- eta komunitate-sareetan oinarritzen den eta haiek babesten dituen esku-hartzeak izango du lehentasuna, betiere hurbiltasunari begira.

c) Pertsonalizazioa: arreta hobekien molda edo egoki dadin lortzeko modu malgua bilatzea, arreta hori jasotzen duen gizabanako bakoitzaren premia, eskaera eta igurikimenetara molda edo egoki dadin.

d) Sinergia: doikuntza handiena, jarraitutasun handiena, arintasun handiena eta efektu biderkatzailea pertsonak jasotzen dituen prestazio eta zerbitzuen artean eta horiek ematen dituzten sistema eta sareen artean.

e) Pertsonen eta taldeen autonomia, parte-hartzea eta ahalduntzea sustatzea: lan egitea pertsonak gaitasun onenak gara ditzaten eta erabaki dezaten eurengan eraginik duen guztiari buruz, albait gehien.

f) Normalizazioa: jendeari kulturalki arauemaileak edo sozialki balioetsiak diren inguruneak, jarduerak, baliabideak eta aukerak eskaintzea, eta aldi berean, giza aniztasuna onartzea, errespetatzea eta indartzea.

g) Gizarteratzea: hain murriztaileak ez izateaz gain albait irisgarrienak diren babesak, inguruneak, jarduerak, zerbitzuak eta baliabideak eskaintzea, hau da, komunitatearekiko harreman handiena sortzen dutenak; era berean, komunitatean ere esku hartu beharko da, informazioko, sentsibilizazioko eta diskriminazioaren aurkako borrokari begira.

h) Kudeaketaren etengabeko hobekuntza, plangintza estrategikoko, komunikazio integratzaileko, jakintzaren eraikuntzako, enpleguaren kalitatearen hobekuntzako eta inpaktuaren ebaluazioko tresnak sartuz, eta eraginkortasunik ezak eta bikoiztasunak saihestuta.

i) Ebaluazioaren edukian eta alderdi formaletan genero ikuspegia jasotzea. Egiten diren programak gizonen eta emakumeen behar espezifikoak izan beharko dituzte kontuan, eta planifikazioan, diseinuan, burutzapenean eta ebaluazioan genero ikuspegia jaso beharko dute.

3. artikulua.– Entitate onuradunen betebeharrak.

1.– Diru-laguntzen onuradun diren Administrazioen betebeharra izango da Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak emandako laguntza ekonomikoarekin batera beren gain hartutako kontratazioari eta ordainsariari dagozkien langileen gaitasun eta prestakuntza teknikoak eta profesionala zehaztea eta egiaztatzea.

2.– Orobat, adierazitako entitateen erantzukizuna da Agindu honetan aurreikusitako laguntza ekonomikoek finantzatzen lagundutako jarduerak indarreko araudiarekin bat datozeela eta erreferentziako arau eta planetan kokatuta daudela zaintzea, jarduera horiek Administrazio publikoek zuzenean kontratatutako langileek gauzatzen dituztenean nahiz horretarako kontratatutako erakunde pribatuek gauzatzen dituztenean.

3.– Edonola ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikuluan ezarritako betebeharrak alde batera utzi gabe, laguntzen onuradunak izango diren erakundeek Agindu honen 8. artikuluan aurreikusitako dokumentazio justifikatzailea Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailera igortzeko betebeharra izango dute, eta horretaz gain, diruz lagundutako jardueren xedea edo izaera nabarmen aldatuko dituen edozein jazoera jakinarazi beharko dute, horien jarraipenean eta geroagoko ebaluazioan Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin lankidetzan aritzeaz gain.

4. artikulua.– Diru-baliabideak.

1.– Agindu honen bitartez araututako kontratazio eta jardueren 2013ko finantzaketa, zehazki, 4.091.149 euro, diru-laguntzen bi lerroetarako aurreikusitako aurrekontu-partidak batzearen emaitza da, Agindu honen 13. eta 18. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki.

5. artikulua.– Eskaerak aurkeztea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

2.– Eskaerak eskabide normalizatu bidez egingo dira. Eskabide hori I. eranskin gisa erantsi zaio Agindu honi eta www.euskadi.net webgunean dago eskuragarri: tramiteak/dirulaguntzak. Eskabide horren atal guztiak behar bezala bete beharko dira eta erakunde eskatzailea legez ordezkatzen duen pertsonak sinatu beharko du; horretaz gain, adierazitako eranskin baten kopia bat aurkeztu beharko da euskarri informatikoan (ahal bada, CDan).

3.– Eskatzaile bakoitzak eskaera bakarra aurkeztu ahal izango du Agindu honetan kontuan hartutako laguntza-azpillerro bakoitzean, hau da, guztira hiru eskaera aurkeztu ahal izango ditu gehienez. Gainera, diru-laguntzaren xede diren jarduerak taldekatu beharko ditu. Jarduera bera diru-laguntzen xede diren lerroetako bakar batean sartu ahal izango da soilik.

4.– Eskabide-orria dagokion diru-laguntzen lerroaren Zuzendaritza kudeatzaileari bidaliko da, eta lerro horretan aurreikusten den dokumentazioarekin batera, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailera (Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz) igorri beharko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako moduan.

5.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

6.– Diru-laguntzarako eskabide-orriarekin batera (I. eranskina) aurkeztu beharko dira, bate-tik, diru-laguntzen azpillerro bakoitzerako eskatzen den dokumentazioa (I.A eta I.B) eta, bestetik, laguntzari eman nahi zaion helburuaren (langileen kontratazioa edo jarduerak gauzatzea) identifikazio- eta garapen-memoria, Agindu honen II. eranskin gisa erantsitako eta behar bezala betetako eskabide normalizatu bidez, www.euskadi.net webgunean eskuragarri dagoena: tramiteak/dirulaguntzak. Paperean aurkezteaz gain, eranskin horren kopia bat aurkeztu beharko da euskarri informatikoan (ahal bada, CDan).

7.– Aurkeztutako eskabideak eta haren dokumentazioak eskatutako eskakizunak betetzen ez badituzte, erakunde eskatzaileari jakinaraziko zaio eta hamar egun balioduneko epea emango zaio dokumentazioa konpontzeko; hori egin ezean, eskaeran atzera egiten duela ulertuko dela jakinaraziko zaio, Ebazpena –Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 eta 42. artikuluetan ezarritakoaren arabera eman beharrekoa– eman ondoren.

6. artikulua.– Laguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.

1.– Jardueren finantzaketari dagokionez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eskaera bakoitzean aurkeztutako jardueren guztizko aurrekontuaren % 75era bitarte finantzatu ahal izango du.

2.– Jarduerak garatzeko zein langileak kontratatuzko emandako laguntzak zatika ordainduko dira; % 70 diru-laguntza onartu ondoren ordainduko da, eta gainerako % 30, berriz, 2015eko martxoaren 1eko datarekin, diruz lagundutako jarduera justifikatzeko agiriak aurkeztutakoan.

7. artikulua.– Diru-laguntzen justifikazioa.

1.– Erakunde onuradunek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute diruz lagundutako jarduera amaitu eta bi hilabeteko epean:

a) Diruz lagundutako kontratazioaren eta/edo jardueraren deskribapen- eta ebaluazio-memoria, eredu normalizatuaren arabera. Eredu hori Agindu honi erantsi zaio III. eranskin gisa (www.euskadi.net webgunean dago eskuragarri: [tramiteak/dirulaguntzak](#)), eta atal guztiak behar bezala beteko dira.

Memoria horretan justifikazio-kontu bat, hau da, gastua –Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak emandako zenbatekoaren parekoa– egiaztatzen duten dokumentu guztiak biltzen dituen erantzukizun-aitorpena jaso beharko da. Aitorpen horretan dokumentuaren nondik norakoa, identifikazioa, kontzeptua, igorlea, data, zenbatekoa eta, hala badagokio, jarduerari egozten zaion ehunekoa eta zenbatekoa adierazi beharko dira.

b) Erakunde onuradunaren organo eskudunaren ziurtagiria, diruz lagundutako jarduerarako edota kontrataziorako bestelako finantzaketa-iturririk 2014an izan ote duen egiaztatzen duena.

c) Jardueraren inguruko dokumentazio publikoa, hala nola, prentsako ebakinak edo diruz lagundutako jardueraren garapenean sortutako materialetako bakoitzaren aleak, sortutako hizkuntza desberdinetan eta euskarri fisiko zein magnetikoan.

2.– Emandako laguntzaren kontura egindako gastuen justifikazioa egiteko ondoko dokumentuak onartuko dira:

1.– Langile teknikari edo administrariak kontratatzearen ondoriozko gastuak justifikatzeko:

a) Entitate onuradunaren gastua kontrolatzeko organo eskudunak emandako ziurtagiria, kontratatutako pertsonen identifikazio datuez eta datu-akademikoez gain, kontratatutako denbora eta kontrataziotik eratorritako diru-kostu osoa jasotzen dituen.

b) Ordainsarien ordainagiriak, eredu ofizialera eta Gizarte Segurantzaren kotizazio-buletin ofizialetara egokituak.

c) Zerbitzua kontratatuta duten erakundeek kontratatutako erakundearekin formalizatutako kontratuaren kopia bat eta dagozkion ordainagiriak aurkeztu beharko dituzte. Kontratuan agertzen ez bada, honako informazio hau banakatu beharko da:

– Kontratutako pertsonen titulazioa edota horren fotokopia konpultsatua.

– Kontratutako pertsonen lan-kostua (Gizarte Segurantzako gastuak barne).

2.– Jarduerak gauzatzearen ondoriozko gastuen justifikaziorako:

a) Erakunde onuradunaren organo eskudunaren ziurtagiria, diruz lagundutako jardueraren ondoriozko guztizko kostu ekonomikoa jasoko duena.

b) Erakunde onuradunaren izenean egindako fakturak, gastuei dagozkienak. Baliagarria izateko, faktura orok 2014koa beharko du izan.

c) Ziurtagirien edo banku-zorpetzeagatiko kargu-dokumentuen bidez justifikatutako ordainagiriak, betiere finantza-erakundeek eginak badira eta faktura bati dagozkion datuak biltzen badituzte, zenbakia eta seriea izan ezik.

3.– Diru-laguntza behar bezala aplikatu ote den egiaztatzeko, finantzatutako jardueraren gas-tuaren egiaztariak, diruz lagundutako erakundeen zorizko lagin bat oinarri hartuta, laguntza eman eta hurrengo urtean egiaztatu ahal izango dira, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak edota Kontuen Euskal Epaitegiak, legez ezarritako epearen barruan, egokitzat jotako gainerako ikuskapenak, jarraipenak eta kontrolak egin ditzaketela alde batera utzi gabe.

8. artikulua.– Kudeaketa, ebazpena eta errekurtsioak.

1.– Agindu honetan araututako diru-laguntzak kudeatu eta ebazteko órgano eskuduna, diru-laguntzen lehen erroari dagokionez, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza izango da, eta, diru-laguntzen bigarren erroari dagokionez, Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza.

2.– Diru-laguntzen lerro bakoitzerako, kudeatu eta ebazteko eskumena duen zuzendariak Balioespen Batzorde bat hautatuko du, eta Batzorde horrek diru-laguntzen ebazpen-proposamena emango du.

3.– Kide anitzeko Organo hori gutxienez bi pertsonak eta gehienenez lau pertsonak osatuko dute, betiere Enplegu eta Gizarte Sailaren Zuzendaritzetako goi-karguak edo funtzionario edo langileak badira eta gizarte-gaietako arloan eta immigrazioaren eta kulturartekotasunaren arloan eskumena badute, Zuzendaritza horietako bakoitzak proposatuta. Beharrezko neurriak hartuko dira Balioespen Batzordean bi sexuen presentzia orekatua egon dadin lortzeko. Kasu bakoitzean, diru-laguntzen lerroa kudeatzen duen Zuzendaritzako funtzionario edo langile batek jardungo du Kide anitzeko Organoaren idazkari gisa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da Organo horien osaera.

4.– Agindu honetan aurreikusitako diru-laguntzak emateko eta, hala badagokio, ukatzeko, Agindu honetan aurreikusitako laguntzen azpillerro bakoitzaren ardura duen zuzendariak Ebazpena emango du, eta erakunde eskatzaileei banan-banan jakinaraziko zaie ebazpen hori. Emakida-ebazpenak eta horien aldaketak (halakorik egonez gero), Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, eta bertan erakunde onuraduna, diruz lagundutako kontzeptuak eta horiei dagozkien zenbatekoak jasozko dira. Era berean, ukatutako eskaerak jasozko dira, ukapenaren arrazoia adierazita.

5.– Ebazpen horrek administrazioarekiko bidea agortzen ez duenez, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaioke kasu bakoitzari Gizarte Politiketako sailburuordeari, hilabeteko epean jakinarazpen-egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

6.– Ebazteko eta ebazpenak jakinarazteko gehieneko epea lau hilabetekoa izango da, deialdi-agindua argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, eta epe hori igaro eta ebazpenik jakinarazi ez bada, diru-laguntzarako eskabidea ukatutzat hartu ahal izango da, esanbidezko Ebazpena eman beharra bazter utzi gabe, eta hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

9. artikulua.– Bestelako laguntza edo diru-laguntzekiko bateragarritasuna.

1.– Agindu honetan araututako diru-laguntzak bateragarriak dira Eusko Jaurlaritzaren beste Sail edo Erakunde Autonomoren batek edota bestelako Administrazio edota erakunde publiko edo pribatuen batek eman ditzakeen beste batzuekin, betiere xede eta helburu bera badute. Nolanahi ere, diru-laguntzen zenbatekoak ezin izango du gainditu diru-laguntzaren xede den kontratazio edo jardueraren guztizko kostua.

2.– Beste laguntza batzuekiko aldi berekoa bada, eta betiere laguntza horien baturak diru-laguntzaren xede den kontratazio edo jardueraren guztizko kostua gainditzen badu, soberakin hori bateraezina dela aitortuko da, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eman beharreko laguntzaren zenbatekoa murriztuta.

10. artikulua.– Emakida-ebazpenaren aldaketa.

Dirulaguntza emateko kontutan hartutako baldintzak aldatzen badira; horrekin batera beste administrazio nahiz erakunde publiko nahiz pribatu batzuetatik laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen badira; edota, kasua bada, helburu bererako beste diru-sarrera zein baliabide batzuk eskuratzen badira, dirulaguntza emateko hartu zen erabakia aldatu egin ahal izango da; kasu horretan, dena dela, dirulaguntzen onuradun izateko arau honetan jarritako oinarritzko baldintzak gorde egingo dira. Horretarako, laguntzen azpillerro bakoitzari dagokion Zuzendaritzak aldaketa egiteko Ebazpena emango du. Ebazpen horren bidez, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa egokituko da, horiek emateko irizpideak eta mugak aplikatuta, eta erakunde onuradunak itzuli egin beharko ditu soberakinak.

II. KAPITULUA

DIRU-LAGUNTZEN LEHEN LERROA: GIZARATERATZE POLITIKAK GARATZEKO TEKNIKARIAK ETA/EDO ADMINISTRARIK KONTRATATZEKO LAGUNTZAK

11. artikulua.– Xede espezifikoak.

1.– Laguntza-lerro honen xedea erakunde publikoek gizarateratzearen alde egiten duten gizarte-eskuartzea sustatzea da.

2.– Horretarako, 2014. urtean teknikarien eta/edo administrarien kontratazioa finantzatuko da, lanaldi-erdian gutxienez, gizarateratze-politikak garatzeko.

12. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Laguntza hauen onuradunak izan ahalko dira Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 87. artikuluan adierazitako nortasun juridiko propioko udalerrriak eta haien erakunde autonomoak, mankomunitateak, koadrilak eta partzuergoak.

2.– Xedapen honen babespeko langileen zuzeneko kontratazioa hainbat tokierakundek batera egin ahal izango dute, nahiz eta horien zerbitzuak erkidetuta ez egon. Horrelako kasuetan, eta toki-erakundeen elkarte batek Lurralde Historiko bakoitzaren barruan eskatzen badu, dagokion foru-aldundiaren bitartez eskatu ahal izango dira laguntza horiek.

3.– Orobat, adierazitako entitateen erantzukizuna da Agindu honetan aurreikusitako laguntza ekonomikoek finantzatzen lagundutako jarduerak indarreko araudiarekin bat datozela eta erreferentziatzko arau eta planetan kokatuta daudela zaintzea, jarduera horiek Administrazio publikoek zuzenean kontratatutako langileek gauzatzen dituztenean nahiz horretarako kontratatutako erakunde pribatuek gauzatzen dituztenean.

13. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa.

1.– 2014. urteko ekitaldirako leerro horretarako 3.126.149 euroko diru-laguntza onartu da.

14. artikulua.– Banaketa-prozedurak eta -irizpideak.

1.– Teknikarien eta/edo administrarien kontratazioa, gizarteratzearen eta gizaratean baztertuta egoteko arriskuan dauden giza taldeen gizarteratze aktiboa prestatzeko baliabideak eskuratzen laguntzera lehentasunez zuzendutako jarduerak garatzeko.

a) Gizarteratze-ekintzak garatzera bideratutako teknikariak eta/edo administrazio-langileak kontratatzeko aurrekontu-kreditua IV. Eranskinean adierazitako moduan banatuko da, honako gizarate-adierazle hauetan oinarrituta:

- 1.– Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten unitateen kopurua:
- 2.– Langabezian dauden pertsonen kopurua.
- 3.– Immigranteen kopurua.

Edozein kasutan, eranskin horretan zenbatetsitako zenbatekoa Agindu honetan xedatzen den moduan eta epearen barruan eskatu beharko da.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakunderen baten saldorik badago eta saldo hori lerro hauetan xedatuta ez badago, lehen adierazitako IV. eranskinean alde aurretik zenbatetsitako zenbateko osoa edo zenbatekoaren zati bat eskatu ez delako, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak saldo horiek berriz esleitu ahal izango ditu, alde aurretik esleitutako zenbatekoa baino gastu-aurreikuspen handiagoa duten beste tokierakundeen alde. Horretarako, zenbatetsitako zenbatekoa gainditzen duen gastu-aurreikuspena duten udalerrien artean eskatu gabeko saldoa banatzeko, lehen adierazitako esleipen-irizpide berberak aplikatuko zaizkie udalerrri horiei, betiere kasu bakoitzean eskatutako zenbatekoraino.

15. artikulua.– Kudeaketa Organoa.

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzari dagozkio diru-laguntzen lerro honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko eta ebazteko lanak egitea.

III. KAPITULUA

DIRU LAGUNTZEN BIGARREN LERROA: IMMIGRAZIOKO TEKNIKARIEN KONTRATAZIOAREN JARRAIPENERAKO ETA IMMIGRAZIOAREN ETA KULTUREN ARTEKO BIZIKIDETZAREN ESPARRUKO JARDUERETARAKO LAGUNTZAK

16. artikulua.– Xede espezifikoa.

1.– Laguntza-lerro honen xedea da toki-erakundeek beren ekimenez egindako esku-hartze soziala sustatzea, immigrazioaren eta kultura arteko bizikidetzaren alorrean horrelako tokierakundeak laguntzeko.

2.– Horretarako, immigrazioko langile teknikarien kontratazioaren mantentzea finantzatuko da, 2013an indarrean zeuden kontratazioen kasuan, eta kontratazio horiek Enplegu eta Gizarte Politiketako diru-laguntzak jaso badituzte; horretaz gain, immigrazioaren eta kulturen arteko bizikidetzaren alorreko jarduerak egiteko, gauzatzeko eta ebaluatzeko lanak ere finantzatuko dira.

3.– Inmigrazioko teknikariei nahiz diruz-lagundutako proiektu edo programei dagokienez, jarduera-ildoek bateragarriak izan behar dute Familia Politikarako eta Komunitate Garepenerako Zuzendaritzaren Inmigrazio, Hiritartasun eta Kulturarteko Elkarbizitzarako Euskal Estrategiarekin. Besteak beste, jarduera ildo hauek jaso beharko ditu: inmigrazio eta hiritartasunaerko euskal politika egiruratzea eta artikulatzea erakuneen barruan eta erakundeen artean; laneratzea, pres-

takuntza eta eskolako arrakasta, integrazioarako bide diren heinean; zerbitzuetara eta programa publikoetara sarbidea izatea; parte-hartzea, kultura aniztasuna eta elkarbizitza; eta, azkenik, bazterkeriaren, arrazismoaren eta xenofobiaren aurka egitea.

4.– Toki-erakundeak esleitutako funtzioez aparte, inmigrazioko teknikarien lana tranbersala izango da eta udaleko arlo ezberdinak inplikatzeko eta konprometitzeko ahaleginduko da, migrazio-egitateetako politika orokor eta espezifikokoetara sar daitezela, betiere, berdintasunean, udal zerbitzu eta baliabideetara sarbide normalizatua lortzeko.

Era berean, inmigrazioko teknikari kontratatuek honako funtzio hauek burutu beharko dituzte:

4.1.– Inmigrazioaren eta kulturarteko elkarbizitzaren arloan, euskal politika diseinatu, burutu eta ebaluatzeko laguntzea.

4.2.– Sareko lan eta kontraste espazioetan parte hartzea, Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak edo toki-erakundeek sustatutakoak badira.

4.3.– Inmigrazioaren eta kulturarteko elkarbizitzaren arloan, Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzarekin eta horren mendeko zerbitzuekin koordinatzea Enplegu eta Gizarte Politiketako Saitetik sustatu eta zuzendutako politika eta estrategiak.

5.– Printzipio orokor gisa, Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak garatu, sustatu eta eskainitako jarduerekin bat ez datozenak gauzatzeko laguntzak emango dira, zuzenean eta zehar-bidetik, zuzendaritza horren mendeko zerbitzuen bidez.

17. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Inmigrazioko langile teknikarien kontratazioarekin aurrera jarraitzeko laguntzen onuradunak izateko aukera izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko udalek, mankomunitateek, partzuergoek, eskualdeek, eskualde-garapenerako agentziek, udalaz gaindiko tokierakundeek edota udalerrien elkarteek, betiere 2013an inmigrazioko langile teknikariak kontratatuta bazituzten.

2.– Inmigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren alorreko jarduerak lantzeko, gauzatzeko edota ebaluatzeko laguntzen onuradunak izateko aukera izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko udalek, mankomunitateek, partzuergoek, eskualdeek, eskualdegarapenerako agentziek, udalaz gaindiko toki-erakundeek edota udalerrien elkarteek. Hainbat toki-erakundeek batera egin ditzakete eskabideak, nahiz eta horien zerbitzuak erkidetu ez egon. Horrelako kasuetan, eta toki-erakundeen elkarte batek Lurralde Historiko bakoitzaren barruan eskatzen badu, dagokion foru-aldundiaren bitartez eskatu ahal izango dira laguntza horiek.

3.– Orobat, adierazitako entitateen erantzukizuna da Agindu honetan aurreikusitako laguntza ekonomikoek finantzatzeko lagundutako jarduerak indarreko araudiarekin bat datozela eta erreferentziako arau eta planetan kokatuta daudela zaintzea, jarduera horiek Administrazio publikoek zuzenean kontratatutako langileek gauzatzen dituztenean nahiz horretarako kontratatutako erakunde pribatuek gauzatzen dituztenean.

18. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa.

1.– 2014ko ekitaldirako 965.000 euroko kreditua zuzentzen du diru-laguntzen lerro horretara, eta kreditu hori honela banatzen da:

a) 2014an inmigrazioko langile teknikarien kontratazioarekin aurrera jarraitzea: 405.790 euro.

b) Inmigrazioaren eta kulturen arteko bizikidetzaren alorreko jarduerak egin, gauzatu edo ebaluatzea: 559.210 euro.

2.– Goragoko paragrafoan aurreikusitako azpillerro bakoitzarentzat kontsignatutako aurrekontu-kredituaren guztizko zenbatekoa gehitu ahal izango da, kontuan izanik eskatutako laguntzen guztizko zenbatekoa, betiere beste azpillerro bat exekutatzearen ondorioz agertzen diren aurrekontu-baliabideen arabera. Eta horren berri eman beharko da, dagokion zuzendariaren ebazpen bidez.

Organo Kolegiatuaren ebazpen-proposamenaren bidez, besteko laguntza-azpillerroetarik edozeinetan soberan diren baliabideak erabiltzea proposa daiteke, hartarako arrazoiak emanez.

3.– Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak 2014ko ekitaldiari dagokion langileengatikoa kostua finantzatu ahal izango duen zenbatekoak ezin izango du inolaz ere gainditu 23.870 euroko zenbatekoa lanaldi osorako kontratatutako immigrazioko teknikari bakoitzeko.

19. artikulua.– Banaketa-prozedurak eta -irizpideak.

1.– Immigrazioko langile teknikarien kontratazioa.

Diru-laguntza jasoko duten teknikarian lanpostuak 2013an direnen jarraipena izango dira.

Euren udalerrian inmigrazioko teknikariak izateko premia behar bezala justifikatu beharko dute erakunde eskatzaileek.

2.– Jarduerak.

a) Jardueretarako laguntzak emateko prozedura lehiaketarena izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 51.4 artikuluan ezarritakoari jarraiki. Balioespen Batzordeak jarduera bakoitzerako finkatuko du ondoren ezarritako balioespen-irizpideen arabera lortutako puntuazioa. Emakida aurkeztu eta onartutako eskabideak alderatu ondoren gauzatuko da, horien artean lehentasun bat ezartzeko, soilik balioespenik handiena lortu dutenei esleituz, esleituta dagoen aurrekontu-kreditua agortu arte.

b) Emandako diru-laguntzak ezin izango du inolaz ere gainditu eskatutako zenbatekoa edo jardueraren guztizko aurrekontuaren % 75.

c) Diru-laguntzen lerro honetan aurkeztutako jarduerak balioesteko, honako alderdi hauek ebaluatuko dira:

c.1.–Proposamenaren diseinuaren kalitate teknikoa, horren diseinuaren egokitasuna, bideragarritasuna eta ebaluagarritasuna barne: gehienez 30 puntu.

c.2.– Jardueraren bitartez erantzuna eman nahi zaion egoeraren eta horren helburuen garrantzia, zuzeneko edo zeharkako hartzaile edo onuradunen kopurua barne: gehienez 20 puntu.

c.3.– Agindu honen 2. artikuluan jasotako irizpideak eta genero-ikuspegia aplikatzean lortutako meritu bereziak: gehienez 20 puntu.

c.4.– Ebaluazioen emaitza eta diru-laguntza eskatu duen erakundeak aurreko ekitaldietan bere betebeharrak bete izana, erakundeak kudeatzeko duen gaitasunaren adierazle: gehienez 15 puntu.

c.5.– Esku-hartze sozialaren alorreko erakunde arteko koordinazioa eta esku-hartze sozialaren alorraren eta beste alor batzuen (hezkuntza-arloko, osasun-arloko edo enplegu-arloko eskuhartzea) arteko koordinazioa: gehienez 15 puntu.

20. artikulua.– Kudeaketa organoa.

Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzari dagozkio laguntza-lerro honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko eta ebazteko lanak egitea.

21. artikulua.– Jardueren zabalkundea.

Kapitulu honetan xedatutakoari jarriki finantzatzen diren jardueren kasuan, programa horiei buruz egiten den zabalkundeak, hala inprimatutako materialaren nola beste edozein euskarriren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailean oinarrituta egiten dela adierazi beharko du, eta nolana ere jabetza intelektuala arautzen duen legedian xedatutakoa errespetatuz. Jardueri buruzko publizitatea egiteko sortzen diren material guztietan Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren logotipoa agertu beharko da.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Eaeko aurrekontu orokorren kargurako gastu-espeditenteen alde aurretiko izapideketa arautzeari buruzko 2007ko apirilaren 5eko aginduaren –ogasun eta herri administrazio sailburuak emandakoaren– 5.3 artikuluan jasotako ondorioetarako, agindu honetako laguntzak ebaztea honako honen pentzutan dago: 2014ko ekitaldirako, eaeko aurrekontu orokorretan kreditu aski izateko baldintza.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka berraztertzeke aukerako errekurtsioa jarri ahalko diote interesdunek Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo zuzenean administrazioarekiko auzietarako errekurtsioa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, aldizkari ofizial berean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA.– Ordezko araubidea.

Agindu honetan aurreikusi ez diren prozedura-alderdi guztietan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoa aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENETATIK LAUGARRENA.– Ondorioak.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 18a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.

2013ko abenduaren 30a, astelehena

ESPEDIENTEA	
KONTZEPTUA	

Administrazioak bete beharrekoa

I. ERANSKINA

ERAKUNDE PUBLIKOEI EAEko ESKU HARTZE SOZIALAREN ESPARRUAN LANGILE TEKNIKO EDO ADMINISTRATIBOEN KONTRATAZIORAKO ETA INMIGRAZIOKO LANGILE TEKNIKOAK KONTRATATZEKO ETA JARDUERAK EGITEKO INMIGRAZIOAN ETA KULTURARTEKO BIZIKIDETZA ARLOAN

_____ jaunak/andreak,		
_____ Erakundearen _____ eta legezko ordezkari gisa,		
Lurralde Historikoa: _____	Kalea: _____ Zk.: _____	
Posta Barrutia: _____	Udalerrria: _____ 1. telefono-zk.: _____	
2. telefono-zk.: _____	Posta elektronikoa: _____ IFK: _____	
Bankua edo Aurrezki Kutxa: _____	Kontu-zk. (20 digituak): _____	
(Nahitaezkoa da erakundea banku-kontuaren titularra izatea. Erakundea Eusko Jaurlaritzaren Hirugarrenen Erregistroan alta emanda ez badago, edota alta emanda badago, baina erregistro horretan jasota dagoen kontu-zenbakia aldatu nahi badu, Hirugarren Interesdunen/Interesdunaren Altaren inprimakiaren bitartez eskatu beharko du hori; www.euskadi.net webgunean lor daiteke inprimaki hori: tramiteak/dirulaguntzak)		
Honako hau adierazten du:		
Erakunde horrek erakunde publikoei esku-hartze sozialaren esparruan jardueretarako laguntza tekniko emateko eta horiek garatzeko diru-laguntzetarako deialdian -2014ko _____ ko Aginduaren bitartez egina- eskatutako baldintzak betetzen dituela kontuan hartuz,		
Honako hau aitortzen du:		
Eskabide honetan emandako datu guztiak egiazkoak dira, eta		
Honako hau eskatzen du:		
Ondoren adierazitako kontzepturako laguntza ekonomikoa eman diezaioten, zehazki, honako zenbateko hau:		
(Planteatutako kontzeptu bakoitzerako eskabide bana aurkeztu behar da)		
Markatu	Langileak, honako esparru honetara zuzendua:	Eskatutako zenbatekoa
	Gizarteratzea eta gizarte-zerbitzuak	
	Immigrazioa eta kulturarteko bizikidetzak	
Markatu	Honako esparru honetako jardueretarako laguntzak:	Eskatutako zenbatekoa
	Immigrazioa eta kulturarteko bizikidetzak	
	GUZTIRA ESKATUTAKO ZENBATEKOA	
, 2014ko _____ ren _____ (a).		
Erakundea ordezkatzeko duen pertsonaren sinadura eta erakunde eskatzailearen zigilua		

OHARRA: Agindu honetan aurreikusitako diru-laguntzak eskatzerakoan aurkeztu diren datuak fitxategi automatizatu batean sartuko dira, Datu Pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren eraginpean dagoena. Fitxategi horretan bildutako datuak ezin izango zaizkie hirugarren pertsonari edo erakundeei laga, eta fitxategia Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak erakunde eskatzaileei ematen dizkien laguntzak kudeatzeko baino ez da erabiliko. Nahi badutenek, Lege horretan aurreikusten diren sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatu daitezke, diru-laguntzen linea bakoitza kudeatzen duen organoari idazki bat igorritik.

I.A ERANSKINA

DIRU-LAGUNTZEN LEHEN LINEA: LANGILE TEKNIKARI ETA ADMINISTRARIETARAKO LAGUNTZAK,
GIZARTE ZERBITZUEN ESPARRUAN

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Erakundearen Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren fotokopia.

Hirugarrenen alta-inprimakia (Aurkezten den lehen aldia bada edo aurreko deialdietan ekarritako dokumentazioarekiko aldaketarik badago). Izaera juridikorik gabeko zein izaera juridikoa duten erakundeen Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren osakera arautzen duen Otsailaren 20ko EHA/451/2008 Agindua dela eta, edozein erakundek bere kodea aldatu badu, berriro aurkeztu beharko du adierazitako eranskina.

Baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten eta deialdi honetan aurreikusitako laguntzaren eskaera aztertzeke interesgarriak diren bestelako dokumentuak.

2013ko abenduaren 30a, astelehena

I.B. ERANSKINA

DIRU LAGUNTZEN BIGARREN LINEA: IMMIGRAZIOKO LANGILE TEKNIKARIAK KONTRATATZEKO
ETA IMMIGRAZIO ETA KULTURARTEKO BIZIKIDETZAREN ALORREKO JARDUERETARAKO
LAGUNTZAK

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Erakundearen Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren fotokopia.
- Hirugarrenen alta-inprimakia (Aurkezten den lehen aldia bada edo aurreko deialdietan ekarritako dokumentazioarekiko aldaketarik badago). Izaera juridikorik gabeko zein izaera juridikoa duten erakundeen Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren osakera arautzen duen Otsailaren 20ko EHA/451/2008 Agindua dela eta, edozein erakundek bere kodea aldatu badu, berriro aurkeztu beharko du adierazitako eranskina.
- Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikokoak ez diren eta 2014ko urtarrilaren 1ean immigrazio teknikarien kontratazioaren jarraitutasunerako eskatutako laguntzaren xede den/diren udalerrian edo udalerrietan erroldatuta dauden etorkinen kopuruaren ziurtagiria, bertan, etorkinen jatorria, sexua eta adina adierazita. Etorkin horiek biztanle guztiekiko hartzen duten ehunekoa adierazi beharko da.
- Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikokoak diren eta 2014ko urtarrilaren 1ean immigrazio teknikarien kontratazioaren jarraitutasunerako eskatutako laguntzaren xede den/diren udalerrian edo udalerrietan erroldatuta dauden etorkinen kopuruaren ziurtagiria, bertan, etorkinen jatorria, sexua eta adina adierazita. Etorkin horiek biztanle guztiekiko hartzen duten ehunekoa adierazi beharko da.
- Erakunde eskatzaileak 2014an kontratatutako Immigrazio teknikarien kopuru eta lanbide-kategoria adierazten duen ziurtagiri ofiziala, hautaketa prozesuaren emaitza.
- Kontratutako edo kontratatu beharreko langile teknikoaren funtzioen memoria.
- Baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten eta deialdi honetan aurreikusitako laguntzaren eskaera aztertzeke interesgarriak diren bestelako dokumentuak.
- Hala badagokio, arlo horretara diru kopuru bat bideratzen duen eta diru kopuru hori zehazten duen erabakiaren kopia, eta/edo dagokion Erakundearen fede publikoa duen pertsonaren edo Erakundearen legezko ordezkariaren ziurtagiria, erakunde eskatzaileak immigrazio-programetara bideratuko duen diru kopurua adierazita.
- Hala badagokio, 2014ko urtarrilaren 1ean, arrisku-egoeran edo babesik gabe dagoen eta kideen integrazio eta garapen pertsonala eta soziala eragozten duten zailtasunak arintzeko berariazko esku-hartzea behar duen kolektibo izatearen ziurtagiria.
- Udalerrri-elkarteen kasuan, erakundea osatzen duten udalerrietan erroldaturiko etorkin atzerritarrei elkarrekin harrera emateko zerbitzua gauzatzearren sorturiko elkarte biltzen duen erabakiaren kopia, baita zerbitzuari finantziazioa emateko eta horren zenbatekoa finkatzeko hartutako erabakiarena edo/eta mankomunitatean fede publikoa duen pertsonaren edo mankomunitatearen legezko ordezkariaren ziurtagiria ere, immigrazio-programetara bideraturiko diru kopurua adierazita.

I.D. ERANSKINA

ERANTZUKIZUN DEKLARAZIOAK

_____ jaunak/andreak,
 _____ erakundearen _____ gisa,

AITORTZEN DU erakunde eskatzaileak

1.- Emandako laguntzen eta diru-laguntzen esparruan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren Erakunde autonomoek irekitako itzultzeko prozedurarik nahiz prozedura zehatzailerik irekita ez duela.

2.- Diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko administrazio- edo zigor-arloko zehapenik ez duela jaso, eta legez horretarako ezgaituta ez dagoela.

3.- Zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean ez dagoela, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, 4/2005 Legearen (otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerakoa) Azken Xedapenen arteko seigarrenean xedatutakoari jarraiki.

4.- Eskabide honetan jasotako kontzeptua finantzatzeko bestelako finantzaketa-iturriak dituela 2014rako, zehazki, ondoren zerrendatzen direnak:

BESTELAKO FINANTZAKETA ITURRIAK	Kopurua

5.- Eskabide honetan jasotako kontzeptua finantzatzera bideratutako eta ondoren zerrendatutako bestelako diru-laguntzak eskatu dituela 2014rako, edota diru-laguntza horien jasotzailea dela:

DIRU LAGUNTZAK		
Diru-laguntza eskatu zaion Erakundea	Eskatutako kopurua	Egoera (eskatua, emana, ukatua)

Oharra: Ebatzi gabe dauden diru-laguntzak ebatzi bezain laster jakinarazi beharko dira.

, 2014ko _____ ren (a).

Erakundea ordezkatzeko duen pertsonaren sinadura eta erakunde eskatzailearen zigilua

II. ERANSKINA

TXOSTENA ERAKUNDE PUBLIKOEI EAEko ESKU HARTZE SOZIALAREN ESPARRUAN LANGILE TEKNIKO EDO ADMINISTRATIBOEN KONTRATAZIORAKO ETA INMIGRAZIOKO LANGILE TEKNIKOAK KONTRATATZEKO ETA JARDUERAK EGITEKO INMIGRAZIO ETA KULTURARTEKO BIZIKIDETZA ARLOAN
--

Eskatutako diru-laguntzaren xede den kontzeptua markatu

	Langileak, honako esparru honetara zuzendua:
	Gizarteratzea eta gizarte-zerbitzuak
	Immigrazioa
	Honako esparru honetako jardueretarako laguntzak:
	Immigrazioa eta kulturarteko bizikidetza

1.- ERAKUNDE ESKATZAILEAREN DATUAK

1.1.- Erakundearen izena: _____

1.2.- Erakundearen izaera juridikoa: _____

1.3.- Erakundearen erreferentziazko pertsonaren identifikazio-datuak, eskabideari buruzko elkarrizketetarako:

Izena: _____ Abizenak: _____

Erakundearen duen lanpostua edo kargua: _____

Helbidea: _____ Posta-kodea: _____

Udalerrria: _____ Lurralde Historikoa: _____

1. telefono-zk.: _____ 2. telefono-zk.: _____ Fax-zk.: _____

Posta elektronikoko helbidea: _____

2.- ESKATUTAKO LAGUNTZAREN XEDE DIREN LANGILEAK (hala badagokio)

Udalerriko edo udalerrien elkarteko biztanleen kopurua, 2014ko urtarrilaren 1ean indarrean dagoen erroldaren arabera	
Jatorria Europar Batasunean edo europar espazio ekonomikoan ez duten pertsonen kopurua, udalerrian erroldatuak, 2014ko urtarrilaren 1ean erroldaren arabera	
Jatorria Europar Batasunean edo europar espazio ekonomikoan duten pertsonen kopurua, udalerrian erroldatuak, 2014ko urtarrilaren 1ean erroldaren arabera	
Babesik gabe edo arrisku-egoeran daudenen kolektiboa, 2014ko urtarrilaren 1ean erroldaren arabera.	
Eskatutako diru-laguntzaren xede diren lanpostuen kopurua	
Eskatutako langileen guztizko kostua	

Eskatutako diru-laguntzaren xede den lanpostua 1	
Titulazioa	
Lanbide-kategoria	
Lanaldi mota (lanaldi partziala bada, orduak zehaztu)	

Eskatutako diru-laguntzaren xede den esparruko dedikazioa	
Lanpostuari esleitutako eginkizunak	
Kontratuaren hasiera-data	
Kontratuaren bukaera-data	
Kontratazio mota (azpikontratazioa bada, kontratatutako enpresa adierazi)	
Lan-kostua guztira (Gizarte Segurantzaren barne)	

Eskatutako diru-laguntzaren xede den lanpostua 2	
Titulazioa	
Lanbide-kategoria	
Lanaldi mota (lanaldi partziala bada, orduak zehaztu)	
Eskatutako diru-laguntzaren xede den esparruko dedikazioa	
Lanpostuari esleitutako eginkizunak	
Kontratuaren hasiera-data	
Kontratuaren bukaera-data	
Kontratazio mota (azpikontratazioa bada, kontratatutako enpresa adierazi)	
Lan-kostua guztira (Gizarte Segurantzaren barne)	

Eskatutako diru-laguntzaren xede den lanpostua 3	
Titulazioa	
Lanbide-kategoria	
Lanaldi mota (lanaldi partziala bada, orduak zehaztu)	
Eskatutako diru-laguntzaren xede den esparruko dedikazioa	
Lanpostuari esleitutako eginkizunak	
Kontratuaren hasiera-data	
Kontratuaren bukaera-data	
Kontratazio mota (azpikontratazioa bada, kontratatutako enpresa adierazi)	
Lan-kostua guztira (Gizarte Segurantzaren barne)	

LANAREN KOSTUZ GUZTIRA	
------------------------	--

2.1.- Inmigratioko teknikariak izateko behararen justifikazioa, erakundeak egindakoa.

--

2.2.– Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailarekin koordinatzea (Adierazi zelan egin nahi den sailarekiko koordinazioa, konkretuki Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzarekin)

--

2.3.– Sareko lana (Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak edo/eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuk sustatutako sare, foroetan ...).

--

3.– ESKATUTAKO DIRU LAGUNTZAREN XEDE DEN JARDUERA (hala badagokio).

Udalaren edo udalen taldearen biztanle kopurua, 2014ko urtarrilaren 1ean eroldaren arabera	
Jatorria Europar Batasunean edo europar espazio ekonomikoan ez duten pertsonen kopurua, udalerrian eroldatuak, 2014ko urtarrilaren 1ean eroldaren arabera.	
Jatorria Europar Batasunean edo europar espazio ekonomikoan duten pertsonen kopurua, udalerrian eroldatuak, 2014ko urtarrilaren 1ean eroldaren arabera.	
Babesik gabe edo arrisku-egoeran daudenen kolektiboa, esku-hartze espezifiko behar duena, halakorik bada.	

3.1.– Proiektuaren izena.

--

3.2.– Proiektuaren barruan egiten diren jardueren deskripzio laburra (baldin eta proiektuan jarduera bat baino gehiago badira). Kostua ets jarduerarako eskatutako zenbatekoa adieraziz.

--

3.3.– Laguntza hauek arautzeko Aginduaren 2. Artikuluan zehaztu arauzko mako baten edo gehiagotan jardueraren zentzuaren eta kokapenaren gaineko esplikazioa, eta bai genero ikuspegia jasotzea ere.

--

3.4.–Diru-laguntza zein jarduerarako eskatzen den; bada, harexekin erantzuna eman nahi zaion egoeraren diagnostikoa eta bilakaera, eta jardueraren justifikazioa

--

2013ko abenduaren 30a, astelehena

3.5.– Nortzuk jasoko duten (kuantifikazioa eta karakterizazioa).

3.6.– Diru-laguntza zein jarduerarako eskatzen den, harexen helburuak.

3.7.– Diru-laguntzaren helburu den jarduerarentzako aurreikusten den garapenaren deskripzioa (edukiak, faseak, atazak, kudeaketa-prozesuak, kokapena, denboralizazioa ...).

3.8.– Jardueraren ebaluaziorako aurreikusitako prozedura eta helmena.

3.9.– Jarduera aurrera eramateko behar diren giza baliabideak: kuantifikazioa eta ezaugarriak (baita aurreikusitako pertsonen prestakuntza, trebakuntza, eta hala badagokio, baita identifikazioa ere). Erakunde eskatzaileak horiek zuzenean kontratatuko ote dituen adieraziz.

3.10.–Jarduera burutzeko behar diren materialak eta azpiegiturak: deskripzioa eta kuantifikazioa, jada eskura diren ala ez zehaztuaz.

3.11.– Jardueren aurrekontu xehekatua eta detaileduna; euretariko bakoitzarentzat diru-laguntzaren bidez eskatzen den finantzaketa-zatia seinalatuz, eta gainontzekoentzat behar diren edo aurreikusten diren finantzaketa-iturriak eta -erak.)

2013ko abenduaren 30a, astelehena

DIRU SARRERAK ETA GASTUAK

JARDUERAREN DIRU SARRERAK

	Kopurua	Ehunekoa
Erakundearen ekarpena		
Erabiltzaileen ekarpena		
Beste diru-sarrera batzuk (zehaztu)		
Guztizkoa		% 100

JARDUERAREN GASTUAK

Profesional independenteen zerbitzuak	
Materialak	
Alokairuak eta errentamenduak	
Argitalpenak eta komunikazio-jarduerak	
Beste gastu batzuk (zehaztu)	
Gastuak guztira	

DIRU SARREREN ETA GASTUEN ARTEKO ALDEA:

JARDUERA HORRETARAKO AURREKO URTEAN ESKATUTAKO ETA LORTUTAKO FINANTZAKETA

Erakundea	Eskatutako kopurua	Emandako kopurua

3.11.-2014. urterako aurreikusten diren jardueren kronograma (zein egunetan burutuko diren seinlatuaz)

Jarduera	Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urri	Zar	Aben

III. ERANSKINA

JUSTIFIKAZIO MEMORIA ERAKUNDE PUBLIKOEI EAEko ESKU HARTZE SOZIALAREN LAGUNTZA TEKNIKOA EDO ADMINISTRATIBOA EMATEKO ETA HORIEK GARATZEKO DIRU LAGUNTZAK JASOTZEKO ESKABIDEA

ESPEDIENTEA:

KONTZEPTUA:

DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERA:	
ERAKUNDE ESKATZAILEA:	

1. INFORMAZIO OROKORRA

1.1.- Jardueraren iraupena:

Aurreikusitako hasiera-data:
Egiazko hasiera-data:
Aurreko datak bat ez badatoz, azaldu arrazoia:
Amaiera-data:
Egikaritzealdia, guztira:

1.2.- Finantzaketa:

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren diru-laguntza	
Bestelako diru-laguntzak (adierazi)	
Erakundearen ekarpena	
Erabiltzaileen ekarpena	
Beste diru-sarrera batzuk (xehatu)	
JARDUERAREN KOSTUA, GUZTIRA	

1.3.- Diruz lagundutako jarduera diseinatzeko, egikaritzeko eta ebaluatzeko prozesuan parte hartu duten langileek egindako eginkizunak (egindako eginkizunak, dedikazio-denbora eta kontratazio-harremana):

--

1.4.- Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailakhorren mendeko zerbitzuek, 2014n, sustatutako sare, foro, topaketa eta jardunaldietan ... parte hartzea

--

1.5.- Enplegu eta Gizarte Politikarako Sailarekin koordinatzea (adierazi zelan egin den Sailarekiko koordinazioa, konkretuki Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzaren edo horren mendeko zerbitzuekin)

--

2.- JARRAIPEN TEKNIKOA (jardueretarako laguntzen kasuan bete soilik)

2.1.- Jardueraren garapenaren deskribapen laburtua (jarduera aurreikusitakoaren arabera garatu ote den eta haren garapenean izandako laguntzak eta aurkitutako zailtasunak azaldu, baita aurreikusitako jardueretikiko aldaketa posibleak ere. Zehaztu nola egin den jardueraren jarraipena eta ebaluazioa)

--

2.2.- Jardueraren helburua lortzea (azaldu zenbaterainoko laguntza eskaini duen jarduerak aurreikusitako helburuak lortzeko)

--

2.3.- Emaitzak lortzea (deskribatu aurreikusitako emaitza eta hori neurtzeko erabilitako adierazleak, eta horren lortze-maila zehaztu)

1. EMAITZA:
Adierazleak:
Iruzkinak:

2. EMAITZA:
Adierazleak:
Iruzkinak:

3. EMAITZA:
Adierazleak:
Iruzkinak:

4. EMAITZA:
Adierazleak:
Iruzkinak:

5. EMAITZA:
Adierazleak:
Iruzkina:

2.4.- Gauzatutako jardueren zerrenda

Aurreikusitako jarduera	Amaitua	Egin gabea
Aurreikusi gabeko jarduera		

2.5.- Jardueren kronograma eguneratzea (2. 4 idatz-zatian deskribatutako jarduerak zerrendatu eta jarduera bakoitzaren egikaritze-hilabeteak X batez markatu)

Eginkizuna	Urt.	Ots.	Mar.	Apr.	Mai.	Eka.	Uzt.	Abu.	Ira.	Urr.	Aza.	Abe.

3.- BALIOESPENA (jardueretarako laguntzen kasuan bete soilik)

3.1.- Jardueraren balioespen orokorra (jardueraren alderdi azpimarragarrienak balioetsi: emaitzak eta helburuak egindako jardueren bidez lortzea, aurrekontu-egikaritzea, esku-hartzearen hartzaile izan diren pertsonen partaidetza, etorkizuneko esku-hartzeetarako hobetu beharreko alderdiak, eta abar)

--

3.2.- Genero-ikuspegia (jardueraren ziklo osoan genero-ikuspegi bati zein neurritan eutsi zaion adierazi, hots, emakumeen eta gizonen egoera, baldintza eta premia desberdinen kontsiderazio sistematikoa, desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jardun espezifikoak txertatuz)

--

3.3.- Koordinazioa beste gizarte-erakunde eta erakunde publiko batzuekin (adierazi jarduera egikaritzean nola gauzatu den beste erakunde pribatu edo publikoekiko koordinazioa, baita etorkizunean egin daitezkeen lankidetzak ere)

--

4.- JARRAIPEN EKONOMIKOA

4.1.- Egikaritutako aurrekontuaren laburpena

Finantzatzaileak Partidak	Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren diru- laguntza	Beste hainbat diru-laguntza (xehatu)	Erakunde eskatzailea	Beste batzuk	GUZTIRA
Profesional independenteen zerbitzuak					
Materialak					
Alokairuak eta errentamenduak					
Argitalpenak eta komunikazio- jarduerak					
Beste gastu batzuk (zehaztu)					
GUZTIRA					
Guztizko kostuen gaineko ehunekoa					

2013ko abenduaren 30a, astelehena

JUSTIFIKAZIO KONTUA. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak emandako zenbatekoaren pareko gastua egiaztatzen duten dokumentu guztien zerrenda biltzen duen zimpeko aitortpena.

GASTUAK								
ZK.	Dokumentuaren izaera	Identifikazioa	Kontzeptua	Igorlea	Data	Kopurua	Egozpen- ehunekoa	Egozitako kopurua
1								
2								
...								
GASTUAK GUZTIRA								

Taula hori erreferentziako dokumentu gisa erantsi da, baina beste formatu batean ere aurkez daiteke, betiere informazio baliokidea jasotzen badu eta Erakundea ordezkatzeko duen pertsonaren sinadura eta Erakunde onuradunaren zigilua baditu.

Erakundea ordezkatzeko duenaren sinadura eta erakunde eskatzailearen zigilua

MEMORIA HONEKIN BATERA AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA:

- 2013n diruz lagundutako kontratazio/jarduerarentzat beste finantzaketa-iturri batzuek izateari buruzko ziurtagiria, erakunde onuradunaren organo eskudunak emana
- Kontu justifikatua, behar bezala sinatua eta zigilatua.
- Jarduerari lotutako dokumentazio izaera publikokoa, hala nola prentsako albisteak edo zenbait hizkuntzako bertsioak, euskarri fisikoan edo magnetikoan, diruz lagundutako jarduera garatzeko sortutako materialei dagokienez.
- Erakunde onuradunaren organo eskudunaren ziurtagiria, zeinetan diruz lagundutako jarduera bakoitzaren kostu ekonomikoa jasotzen den (Jarduerak garatzearen ondoriozko gastuak justifikatzeko).
- Erakunde onuradunaren izenean emandako fakturak (Jarduerak garatzearen ondoriozko gastuak justifikatzeko).
- Erakunde onuradunaren gastua kontrolatzeko organo eskudunaren ziurtagiria, zeinetan kontratatutako pertsonen datu akademikoak eta identifikazio-datuak eta kontratazioaren ondoriozko denbora eta kostu ekonomiko guztizkoa (teknikariak edo administrazio-langileak kontratatzearen ondoriozko gastuak justifikatzeko).

2013ko abenduaren 30a, astelehena

IV. ERANSKINA

Entitatea	2014 Esleipena
Amurrioko Udala	33.873,12
Aiarako Eskualdea	15.893,97
Kanpezuko Eskualdea	13.264,55
Iruña Okako Udala	1.760,64
Laguardia-Arabako Errioxako Eskualdea	12.455,40
Laudioko Udala	21.730,83
Ayuntamiento de Ribera Baja	2.884,00
Aguraingo Eskualdea	13.208,49
Vitoria-Gasteizko Udala	423.371,34
Zuiako Koadrila	12.995,35
Abaltzisketako Udala	474,42
Aiztondoko Mankomunitatea	9.242,29
Alegiako Udala	5.431,73
Altzoko Udala	690,54
Andoaingo Udala	20.128,73
Anoetako Udala	2.991,93
Aretxabaletako Udala	14.442,59
Arrasateko Udala	39.193,32
Asteasuko Udala	1.509,69
Azpeitiko Udala	18.520,80
Baliarraingo Udala	728,85
Beasaingo Udala	24.144,28
Bergarako Udala	22.868,64
Bideberriko Mankomunitatea	10.728,81
Debako Udala	14.191,67
Donostiako Udala	130.106,94
Eibarko Udala	48.033,37
Elgoibarko Udala	16.690,25
Errenteriako Udala	57.970,90
Eskoriatzako Udala	8.673,25
Hernaniko Gizarte Ongizate Udala	32.058,71
Hondarribiako Udala	31.773,54
Ikaztegiako Udala	913,97
Irungo Udala	57.999,37
Irurako Udala	579,30
Lasarte-Oriako Udala	21.587,43
Legazpiko Udala	6.948,17
Lezoko Udala	24.574,40
Mutrikuko Udala	3.831,00
Oiartzungo Udala	19.398,44
Olaberriko Udala	1.105,55
Oñatiko Udala	7.612,44
Ordiziako Udala	9.602,15

2013ko abenduaren 30a, astelehena

Entitatea	2014 Esleipena
Orendaingo Udala	398,65
Pasaiaiko Udala	30.669,24
Saiaz Mankomunitatea	4.241,62
Soraluzeko Udala	11.486,30
Tolosako Udala	53.502,34
Uliko Mankomunitatea	8.750,00
Urnietako Udala	9.196,69
Urola kosta Mankomunitatea	58.647,23
Urretxuko Udala	12.615,50
Usurbilgo Udala	6.006,18
Villabonako Udala	17.521,32
Zestoako Udala	11.226,45
Zumarragako Udala	15.294,56
Abanto-Zierbenako Udala	32.898,95
Alonsotegiko Udala	9.849,39
Amorebieta-Etxanoko Udala	17.994,52
Arratiako Mankomunitatea	26.919,82
Arrigorriagako Udala	46.141,62
Balmasedako Udala	17.149,45
Barakaldoko Udala	101.842,34
Basauriko Udala	57.498,93
Bermeo Udal Patronatua	104.001,30
Berrizko Udala	8.681,22
Bilbaoko Udala	467.096,07
Busturialdeko Mankomunitatea	32.108,36
Durangoko Mankomunazgoa	43.165,07
Enkarterriko Mankomunitatea	54.571,17
Erandioko Udala	37.352,29
Ermuako Udala	26.905,59
Etxebarriko Udala	34.020,34
Galdakaoko Udala	38.585,37
Getxoko Udala	104.166,18
Lea Artibai Mankomunitatea	24.508,79
Lea Ibarre Mankomunitatea	5.226,92
Leioako Udala	34.081,19
Mungialdeko Partzuergoa	28.644,88
Muskizko Udala	20.924,73
Orduñako Udala	32.756,01
Orozkoko Udala	2.976,86
Ortuellako Udala	14.859,89
Portugaleteko Udala	56.400,20
Santurtziko Udala	67.998,22
Sestaoko Udala	48.960,17
Trapagarango Udala	21.770,70
Txorierriko Mankomunitatea	8.071,56

2013ko abenduaren 30a, astelehena

Entitatea	2014 Esleipena
Miraballesgo Udala	5.987,95
Uribe Kosta Mankomunitatea	34.215,83
Zierbenako Udala	2.075,85
TOTAL	3.126.149,00